2018

Karabeleko

[URTEKO MEMORIA]

Karabeleko etxalde agroekologikotik pasaden urteak eman duena

Recopilación de lo que ha dado
la finca agroecológica Karabeleko

SUSTATZAILEAK

Blas Enea mintegiak

KIMU BAT 25 urte

ernetuz

AGIFES

AURKIBIDEA

SARRERA 1.
SUSTATZAILEAK 2.
MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK 3.
GIZARTE ERAGINA 4.
2018-EKO ERREHABILITAZIO TALDEAREN JARDUERAK 5.
2018-EKO BESTELAKO KOLEKTIBOEKIN JARDUERAK 6.
2018EKO IKERKETA JARDUERAK 7.
GIZARTEARENTZAT ETA GIZARTEAREKIN EGINDAKO JARDUERAK 8.

1. KARABELEKO TALDEA

Karabelekok beste edozein proiektu jaio berriren antzera horren erabakigarriak diren lehen bost urteak osatu ditu gizarte hau eraldatzeko bokazioan sakonduz. Hau dena posible izaten gure jatorrizko elkarlan sentimenduan sakondu dugulako, sentimenduz, ametsez, errealismoz eta etengabeko maitasun kritikoaz. Hau dena posible izan da gure produktuan sinesten duzuen kontsumitzaileei eskerrak, boluntario gisa diharduzuenoi eskerrak, gure lagun eta bidaide zaretenoi eskerrak. Azken finean Karabeleko proiektuarekin modu batera edo bestera bat egiten duzuenoi eskerrak.

Urteko memoria hau Karabeleko proiektuaren ardatz diren baratzegintza ekologikoa, errehabilitazioa eta esperimentazio arloez gain buruturiko gainerako elkarlan zein sentsibilizazio lanaren erakusleiho bat da. Baina urte honetan zerbait nabarmendu beharko bagenu batetik lan munduratzean indarrak handitu izana, lehen sektore lokalarentzako estrategikoak diren lau proiektutan elkarlanean aritu izan eta sentsibilizazio mailan biderkaturiko ahalegina lirateke.

ERREHABILITAZIO ETA LAN MUNDURATZE ATALETAN gure eragina ugaritu egin dugu eta datorren urte honetan egonkortzeko pausuak eman ditugu. Honetarako 2018 urtean zehar orain arte 2 lan kontratu eskaintzen bagenituen aurten 3 kontratu eskaini ditugu eta gainera lau hilabetean zehar izan beharrean urte erdiz. Lanpostu egonkorra mantentzen jarraitzen dugu. Datorren urterako mugarri garrantzitsu bate ere jarri dugu izan ere MIHI BERDEA ustiaketa zein eraldaketa proiektua martxan hasi da eta merkatua zabaltzen doan heinean gure kolektiboko pertsonei lan aukera egonkorrak eskaini ahalko dizkiegu.

LURRALDE INPAKTUA. Lehen sektorean beste hainbat eragile garrantzitsurekin elkarlanean sektorerako estrategikoak diren proiektuetan gure bultzada eman dugu. ***Batetik SAREKO***, ostalaritza eta produktore ekologikoen arteko komertzio sarea izan nahi duenean ***Bestetik KM0 Buruntzaldeako*** kontsumo lokala sustatzeko eskualde proiektuan. ***ALEKA. BIOANIZTASUNA.*** Euskal Herrian ekoitziriko lehen hazi ekologikoen produkzio proiektuaren lehen harriak jartzen ari gara.

Hau guztia gutxi balitz eta txosten honetan jasotzen diren ekintza guztiez gain gure ustiaketaren komertzializazioak hedatzen jarraitzen du eta baita pertsona taldeari dagokionez ere. Gure etxaldearen tamaina 2Ha-ren bueltan egonkortu da, gure kontsumitzaile sarea Donostialdean zabaltzen doa eta agroekologiaren baloreak sareetan hedatuz doaz.

2. SUSTATZAILEAK

AGIFES (Buruko gaitza duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkartea).1985ean sortutako **irabazi-asmorik gabeko elkartea** da eta bere helburua da komunitatean **buruko-gaitzak dituzten pertsonen integrazioa eta normalizazioa** lortzea, **kalitatezko zerbitzuak aldarrikatzea** (gizartekoa, lanekoa, osasun-arlokoa) eta buruko-gaitza duten pertsonen eta hauen senideen **bizitza-kalitatea hobetzea**. Bere jarduera Gipuzkoan gauzatzen du programa pertsonalizatuak eta zentro espezializatuak kudeatuz. Helburua buruko gaitza duten pertsonen errekuperazioa delarik.

KIMUBAT. **Duela 25 urte** Kimu bat lorezaintza arloan hasi zen lanean eta pixkanaka, lorezain-talde, makineria eta garden propioa izatera heldu zen. Hauek , neurri eta azpiegitura handiagoa eskatzen dituzten lanak egiteko gaitasuna eta besteak beste, lorategiarekin lotutako elementuak eskaintzeko aukera eman zioten.

Kimu Baten araua eboluzioa da. Eta horregatik, gure kezkak direla eta, ingurumenarekin lotura duten lan-lerroak bilatzen ditugu. Barazkien munduarekin lotutako arlo desberdinetan jasotako ezagutza eta dibertsitateagure motorra eta balio nagusiak dira gaur egun.

Aipatu nahi dugu eboluzio horrek izaera soziala eta parte-hartzailea duen enpresa baten sorreran eragin duela. Hori dela eta, Kimu bat erreferentziazko lan-sozietate bezala finkatu da Gipuzkoan.

BLASENEA. Blasenea mintegi ekologikoa enpresa familiarra da eta 2006tik esklusiboki barazki ekologikoen, landare usaintsuen eta fruitu txikidun landareen mintegi ekoizpenean dihardu. Mintegi-aukera zabala ekoizten du barietate ugarirekin lan egiten duelarik: tomatearen 80 barietate inguru, piperraren 50 barietate inguru, etab. Barietate komertzialez gain, berreskuratutako antzinako barietateak eta tokiko barietateak ere ekoizten ditu. Era berean, esklusiboki ekologikoak eta ziurtatutako haziak, fitosanitarioak, substratuak, humusa, konposta... komertzializatzen ditu.

3.MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Karabeleko baratzezaintzan oinarritutako lursaila da eta helburutzat ditu jasangarritasun ekonomikoa, ingurumen eta gizarte jasangarritasuna baratzezaintza ekologikoaren esperimentazio, agroekologiaren sustapen eta buruko gaitzak dituzten pertsonen integrazio soziolaboral eta bizi-kalitate hobekuntza.

MISIOA.

Proiektu honen helburu nagusia baratzezaintza-zentroa martxan jartzea da. Zentro honek interes eta helburu anitzak bilduko ditu eta eboluzionatuz eta hauek dibertsifikatuz joango direla aurreikusten da. Interesgarria da proiektu honen helburuak azpimarratzea; izan ere, nahiko bereziak baitira:

1. ESPERIMENTAZIO-LURSAILA. Lan-zentro hau baratzezaintza ekologikorako oinarrizko esperimentazio gune ireki gisa bihurtzea.
2. ERREHABILITAZIOA, GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA. Gizarte-bazterketa arriskua eta buruko-gaitz larriak dituzten pertsonen integraziorako eta errehabilitazio psikosozialerako proiektua sustatzea.
3. EKOIZPEN EKOLOGIKOA.Barazkien ekoizpena eta baratzezaintza ekologikorako mintegia.
4. JASANGARRITASUN EKONOMIKOA. Ekonomikoki jasangarria den proiektua sortzea; bere kabuz aberastasuna sortuz. Horretarako, behar berrietara eta gizarteko erronketara egokitu beharko da.

IKUSPEGIA

Gure proiektuak gure gertuko ingurunean dauden hainbat gizarte-arazori konponbidea eman nahi die. Alde batetik, buruko-gaitza duten pertsonen langabezia eta integrazioa bezalako arazo sozialari konponbidea eman nahi die, baina etorkinen edo hirugarren graduan dauden presoen gizarteratzeari ere lekua eman nahi zaio.

Bestalde, Kantauriisurialdeko baratzezaintza ekologikoaren ezagutza ere sustatu nahi da informazioa bilduz eta ikerketa-lerro berriak landuz; izan ere, eskualde honetako ezaugarri orografiko eta sozioekonomikoagatik, lehenengo sektoreak ez baitauka ikerketa-zentro handiak erakartzeko gaitasun nahikorik.

Azkenik, kontzientea den nekazaritza-eredua zabaldu nahi da. Gure ingurunean garrantzia hartuz doan gaia izan arren, gaur-gaurkoz, gure lurraldean dugun potentzialtasunetik urruti baikaude.

Proiektu hauen gauzatzea lortu ahal izateko,berezia, esklusiboa eta kalitatezkoa izateagatik bereziko den jarduera ekonomikoa garatu nahi da.

BALIOAK

Proiektu hau jarraian azaltzen diren parte-hartzaileen giza-kalitatean oinarritutako balioetan finkatzen da:

Pertsona erdigunean.
Gobernantza demokratikoa eta parte-hartzea.
Aukerak buruko-gaitzak dituztenentzat.
Gertutasun-harremanak.
Ingurumenaren jasangarritasuna.
Ezagutzaren garapena.
Tokiko baratzezaintza sektoreari bultzada.
Gizartea eraldatzea.

4. ERREHABILITAZIO TALDEAREN JARDUERAK

2018ean zehar Karabeleko etxaldera etortzen den erabiltzaile-taldeak (OTL programa barruan) beraien gizarteratze eta laneratzea sustatzeko, hainbat jarduera ezberdin eskaini zaizkie. Horretarako, gurean ohikoa den bezala aisialdiko aktibitateak baratzeterapiako eginkizun/jarduerekin uztartu dira etxaldeko lan talde eta AGIFESeko talde teknikoaren arteko elkarlanari eskerrak. Honez gain, lan munduratzeko formakuntza taldea aurrera doa eta aurtengoan 5 lagunek parte hartu ahal izan dute ondorenenean kontratuak eskainiz baratzezian gisara. Honela errehabilitazio eta lan muduratze ekintza nagusiak ondoko hauek dira:

LANPOSTU EGONKOR BAT. + ALDI BATERAKO 4 LANPOSTU SORTZEA :Proiektuaren helburua kolektiboaren barruan lanpostu egonkorra sortzea da hastapenetatik. Honela 2018ko helburu handietako bat gure proiektuaren inpaktua areagotzea izanik gure aktibitate ekonomikoa indartzeari eskerrak formakuntza taldeko 3 lagunek 6 hilabetez kontratu normalizatua eskaini ahal izan zaie.

ZERBITZUA EMAN ZAIEN PERTSONA KOPURUA: Pasaden urtean zehar "Baratzeterapia programan" 23 pertsonak parte hartu dute, hauetatik 9 emakumeak eta 14 gizonezkoak. Aipagarria da hauetatik %82ak urtebete baino gehiago daramala parte hartzen. Ohikoa den moduan herri desberdinetatik etorri dira gehienak Donostiatik 6 baina baita Hernani (4lagun) ondoren Irun (3 lagun) eta pertsona bana, Aia, Getaria Zarautz, Tolosa, Villabona-Amasa, Errenteria-Orereta, Legorreta.

BARATZEZAINEKIN EGUNEROKO JARDUERA. Kolektiboaren ordutegiaren arabera, baratzezainekin baratzeko eguneroko lanetan parte hartu dute. Baratzean: hazitegiak, birlandaketak, landaketak, lurra garbitzeak, baskulantea pasa, uzta bildu, otarrak prestatu, bisita gidatuetan parte hartu...

ERREZETA-LIBURUA. Errehabilitazio taldeak herrian egunero erosketak egiten ditu eta baratzean dauden sasoiko elikagaiekin batera, errezeta-liburua osatzen dute osasungarriak diren elikadura ohituretara hurbilduz.

LEHEN HEZKUNTZAKO AURREKIN BISITATAN PARTE HARTZEA. Kolektiboak beti parte hartu du bisita hauetan eta beraien errealitatea zein den azaltzeko gunea dute. Horrela, apiril-maiatza eta urri-azaro bitartean, 13 bisita eskaini dizkiegu Hernaniko ikastetxeei, AGIFESeko Aisialdi eta denbora libreko zentrokoen bisita (OTL), Hondarribiko ikastetxea.

IRTEERA KULTURALAK.: Aurtengo urtean ere bisita kulturalak egiten jarraitzen dugu Gipuzkoan zehar eta baita Bizkaiatik barrena ere. Getaria Balenciaga museora, Santo Tomas feria, Idiazabal gaztaren museoa, Hendaia, Zumarraga Santa luzi feria...

5. BESTELAKO KOLEKTIBOEKIN JARDUERAK

1. AMÉLIARESTAURANT. Paulo Airaudo burutzat duen jatetxe izardun honek urte hasieratik sustatu du urte hasieratik gure proiektuarekin elkarlana jatetxeetan produktu lokal eta ekologikoaren garrantzia sustatzeko eta berari eskerrak gure mezua bozgorailu ezberdinetara eraman ahal izan dugu Paulo bezalako babeslea ondoan izanik.

2. NER-GROUP. Koldo Saratxagak sustaturiko Euskal Herri mailako enpresa sarea da.Elkarlanaren garrantziaz jakitun NER-GROUP taldearen Lurdenok proiektuarekin gure lurralde inpaktua areagotzeko dinamikak jarri ditugu martxan. Orain arteko elkarlan honen emaitza izan daEibarko kontsumo taldea martxan jarri izana eta gure kolektiboko pertsonak lan munduratzeko egin nahian gabiltzan bidea.

3. BURUNTZALDEAKO GARAPEN AGENTZIA. Gure eskualdeko garapen ekonomikoa sustatzeko agentzia gazte honek hasieratik landu izan du lehen sektorearen arloa eta bidelagun gara hastapenetatik. Aurtengo urtean sektorearekin erlazionaturiko hainbat ekintzetan elkarlana bilatu izan dugu.

4. BARATZETIK PLATERERA. Zerbitzatzen dugun jatetxe konprometituen sarea nabarmen gehitu dugu eta beraiekin gure baratzetik beraien platererako bidea ikusarazi nahi zian dugu denekin elkarlanean.

5. AMHER.. Aurtengo urtean Bizilagunak programaren barruan gure etxaldean egun pasa zoragarria antolatu genuen elkarrekin estereotipoak apurtuz eta denok mahaiarne bueltan bazkalduaz.

01. 02.
04. 03.

6. ELIKAGAIEN BANKUA. Jasangarritasunak gure egunerokotasunean duen garrantzia ikusirik elikagaien aprobetxamendu maximoari garrantzi berezi ematen diogu honegatik eta elkar laguntzeagatik elikagai bankuarekin harreman zuzena dugu. Euren eskaintzetan duten produktu fresko faltagatik astero ateratzea lortu ez dugun produktu freskoa jasotzera etorri ohi dira. Aurrera begira elikagaien dohaintzatik haratago esku hartzeko helburua dugu.

6. IKERKETA-JARDUERAK

Esperimentazio-zentroaren helburu nagusia sektore ekologikoarentzako baliagarriak izango deiren esperimentazio lerro zein proiektuak praktikoak deitzen ditugunak sustatzean datza eta honen ondorioz aurten3 ikerketa praktiko burutu ditugula esan genezake .

MIHI BERDEAK IMPLEMENTAZIOA. Pasaden urtean IV gaman oinarrituriko proiektu honen oinarriak aztertu eta publikatu genituen. Urte oso hau proiektua martxan jartzeko moduak aztertzen pasa dugu eta azarotik aurrera baita martxan jarri ere.Urte honetako esperientzia erabakigarria izan da azken momentuan ematea erabaki dugun saltoa emateko. Gur esperientzia edonoren eskura jartzeko hitzaldiak ere eskaini ditugu.

ALEKA. Gezurra badirudi ere gure sektorearen gabezi handietako bat bertan ekoitziriko hazi ekologikoen falta da. Ondorioz sektoreko beste eragile batzuekin batera Euskal Herrian baserritarren artean eginiko lehen hazi ekologikoen produkzioa sustatzea helburu duen proiektu aitzindari honen dinamizazioan parte hartzen ari gara.

BETERRI KM0. Buruntzaldeko lehen sektoreko produktuak eskualdean bertan komertzializatzea indartu nahirik Garapen Agentziak martxan jarri duen proiektu praktiko bezain ezberdin honetan logistika zerbitzua uztartzen duen agente eragile bilakatu gara gure esperientzia denen eskura jarriaz.

-

7. GIZARTEARENTZAT ETA GIZARTEAREKIN EGINDAKOA

Bere zentzu zabalenean ulertuta, agroekologia-balioen zabalkundea bilatzen dugu. Gure gertuko ingurunea aldatu nahi dugu denon artean mundua aldatzeko urratsak eman ahal izateko. Esku artean erronka zoragarria dugu eta mundu guztia erakarri nahi dugu eta toki guztietan ezagutarazi. Horregatik, hainbat ekimenenetan parte hartu dugu, hainbat ekimen sustatu ditugu eta hainbat pertsona zein kolektibo bilatu ditugu elkarlanerako. Azkar joan nahi baduzu zoaz bakarrik baina urrutira iritsi nahi baduzu zoaz taldean.

1. TXORIENE. ETB1-eko sukaldaritzaprograma honekin zuzeneko elkarlana jarri dugu martxan eta gure mezua hedatzeko aukera eskaini digute bai sentsibilizazio sozial zein agronomiko mailan.

2. SUKALDARITZA JASANGARRIAREN VII. JARDUNALDIAK.Basque Culinary Center-en eskutik "Ostalaritzako sareen sorkuntzari buruzko hitzaldia eman genuen .

3. ERRIGORA. Aurten ere Errigorako produktuen banaketarako bi txandetan gure azpiegiturak banaketa gune gisa antolatu ditugu.

4.HITZALDI ETA IKASTAROAK. Miniature jardunaldiak, Global Economy Social Forum, RIS 3 JARDUNALDIAK, Lurra eta itsasoa jardunaldiak,

5.SUKALDARI EZBERDINEKIN BIXITAK. Botanika, Diametro 200, Arzak, Nineu jatetxea, Bodegon, Topa, Urola, Kokotxa, A fuego Negro, Basque Culinary Center,

6. KOLEKTIBO EZBERDINEN BIXITAK. Atal honetan Uliako lore baratzeko lagunak, Tolosako baratze parkekoak, Mujeres por Africa eta ASPEGI

7.AZOKA NABARMENENAK: Orduñako Tokiko produktuen eta produktu ekologikoen III. Azokan, Alternatibe azoka, Igeldoko I. Azoka, Donostiako XV azoka ekologikoa, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren II.azoka,...

8."A BOCADOS" Etb2-ko sukaldaritza programa honetako kolaboratzaile bihurtu gara udazkenetik hona baratzean aurki daitezkeen elikagaien inguruko azalpenak emanaz

9."BARATZETERAPIA JARDUNALDIAK" Euskal Herri mailan antolatu diren lehen ekintza baratzea eta honen onura terapeutikoei buruz, honen inguruko jakitun ezberdin eta eragileen arteko bilgune bilakatuz.

8. GIZARTE INPAKTUA 2018

Pasaden urtean gure proiektuak nekazal etxalde bat baino zerbait gehiago dela erakutsi du gure aktibitate anitzak medio. Horregatik eta ase ezinezko ezinegonak bultzaturik urte honetarako ereekintza zerrenda zabala gauzatzen ari gara aktibitate ekonomikotik haratago gure proiektuaren mezua hedatu asmoz. Gure helburuak sorreratik ditugun atal ezberdinetan antolatuak marraztuak ditugu, hots, gizarte inpaktua, lurralde inpaktua, dibulgazioa ... Jarraian 2018ko gizarte eragina zein izan den laburtzen saiatu gara.

Listado de acciones 2018

			2018											
			1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
REHABILITACIÓN E INCLUSIÓN	**TOTAL**	**68**												
Mantener el SERVICIO DE REHABILITACIÓN	Pertsona	37												
Mantener 2º NIVEL DE FORMACIÓN	Pertsona	4												
TRABAJO NORMALIZADO para personas con problemas de salud mental	Pertsona	1												
GENERACIÓN DE PUESTO DE TRABAJO para una persona del colectivo	Pertsona	2												
INVESTIGACIÓN Y CONOCIMIENTO	**DEDICACIÓN**	**2054**												
MIHI BERDEA. Proceso de implementación	Ord	640												
SAREKO. Participación y gestión de la logística.	Ord	864												
ALEKA. Coordinación del proyecto de producción de semilla lokal	Ord	200												
BETERRI KM0. Colaboración y experimentación en el proceso logistico	Ord	350												
IMPACTO SOBRE EL TERRITORIO	**DEDICACIÓN**	**977**												
LA ALIMENTACIÓN DEL FUTURO. Formación emprendimiento de HAZI	Ord	4												
ALIANZA NERGROUP- KARABELAKO	Ord	40												
BIOANIZTASUNA ERIETEN . Campaña de sensibilización	Ord	75												
GLOBAL ECONOMY SOCIAL FORUM 2018	Ord	12												
JORNADA SLOW FOOD EIBAR	Ord	4												
JORNADA RIS 3. Formación de mandos intermedios de Innobasque	Ord	18												
JORNADA "TIERRA Y MAR. TENDENCIAS DE ALIMENTACIÓN" RIS 3	Ord	4												
GUZTIONA. Participación en el Cluster de Fomento de Donosti	Ord	11												
ENEEK INVESTIGACIÓN. Participación en un proyecto de investigación	Ord	1												
EHU/UPV INVESTIGACIÓN. Participación en un proyecto de investigación	Ord	1												
SENSIBILIZACIÓN DE LA RESTAURACIÓN	**IMPACTO**	**188**												
JORNADAS DE GASTRONOMIA VASCA Basque Culinary Center	Ord.	4												
AMELIA vs KARABELEKO Colaboración de busqueda de producto local	Ord.	45												
BARATZETIK PLATERERA Berrestaurazioko bixita eta sarean	Ord.	85												
JORNADA MINIATURE (Gasteiz)	Unt	5												
BASQUE CULINARY CENTER-eko ikasleen bixitak	Unt	49												
IRIZAR ESKOLA-ko ikasleen bixitak	Unt	18												
IKASTETXEEN bixitak	Unt	140												
JASANGARRITASUN JARDUNALDIAK Basque Culinary Center		100												
SENSIBILIZACIÓN DE PERSONAS	**PERSONAS**													
Jornada de puertas abiertas del "GRUPO DE CONSUMO"	Unt	25												
Participación en IV. FERIA AGROECOLÓGICA DE ORDUÑA	Unt	65												
Jornada de HORTOTERAPIA en Karabeleko	Unt	20												
CANPAÑA GRUPO DE CONSUMO EN EIBAR	Ord	20												
IGELDOKO AZOKA	Unt	20												
Curso formativo sobre multiplicación en HAZIERA	Unt	12												
III. MERCADO DEL CONSUMO RESPONSABLE	Unt	1												
CURSO INTERNACIONAL ALTERNATIBA DE LA ECONOMIA POPULAR	Unt	10												
AMHER SOS RACISMO	Unt	20												
BISITA DE HORTELANOS DEL BARATZE PARKEA DE TOLOSA	Unt	12												
MUJERES POR AFRICA Y ASPAGI. Visita guiada	Unt	9												
JORNADAS SOBRE ECONOMÍA SOCIAL. Bisita guiada	Unt	15												
ULIAKO LORE BARATZEAK. Bisita de grupo.	Unt	12												
FORMACIÓN BETERRI KM 0	Unt	25												
VISITAS DE GRUPOS DE TURISTAS	Unt	4												

Listado de acciones 2018

IMPACTO EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN		
ETB 2 "A bocados"	Unt	6
ONDA VASCA "Gipuzkoako kale nagusia	Unt	1
BERRIA. Sukalde atariko izarrak.	Unt	1
ESPAÑA DIRECTO. Colaboración con el restaurantea Amelia	Unt	1
7K Semanario. Entrevista.	Unt	1
ETB 1 "Txoriene	Unt	12
EUSKADI IRRATIA. Programa Landaberri de agricultura	Unt	1
FACEBOOK número de artículos	Unt	380
FACEBOOK número de seguidores	Unt	1650
TWITER número de seguidores	Unt	397
TWITER txio kopurua	Unt	5335

2018

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12